

Bihar zabalduko dute Zumaiako Alondegia eraberritua

ZUMAIA. Bihartik aurrera zabalik egongo da Zumaiako Alondegia eraberritua. Herriko kultur jarduera bilduko duen zentroak lau solairu ditu eta aurrerantzean, Forondan orain arte izan diren kultur etxea eta udal liburutegia ere bertan izango dira, herri gunean.

Alondegia irekiko den lehen egunean hainbat ekintza izango dira bizilagunek gune berria ezagutu dezaten. Honela, bi bisita gidatu antolatu ditu Zumaiako Udalak. Hala, 12.00etan eta 18.00etan abiatuko dira bisitak, eta eraikin osoa ezagutzeko aukera izango da. Hala ere, ez da egun horretako ekintza bakarra izango. Izan ere, 19.00etan Gorka Zabaletak, Baleike aldizkariko kazetariak, Alondegia inguruan prestatutako erakusketa irekiko baita. Erakusketaren inauguraziora ere herritar guztiak gonbidatu ditu Udalak.

Bestalde, azterketa garaia dela kontuan izanik, bihartik ekaina bukaera bitarte, astelehenetik ostiralera 9.30etik 20.00etara zabalik izango da Alondegia eta larunbatetan, 9.30etik 13.00etara.